

PROBA ESPEZIFIKOA

2017ko PROBA

HISTORIA

PROBA

ERANTZUNAK





1. Testu-iruzkina. (4 puntu).

Bonba atomikoen eztagaren (1945) eta Sobietar Batasunaren amaieraren artean (1991) igarotako berrogeita bost urteak ez dira historiaren aldi homogeen eta bakar bat...

Hala ere, aldi horren historiak, oro har, patroia bakar bati jarraitu zion, SESBren erorketa arte nagusi izan zen nazioarteko egoerak ezaugarritutako patroia: Bigarren Mundu Gerratik irteerako bi superpotentzien arteko buruz buruko etengabea, hots, Gerra Hotza.

“Gerra ez da guduak izatea soilik, edo borroka egitea, baizik eta denbora-tarte bat da non borrokan hasteko borondatea aski ezaguna baita” (Hobbes). Estatu Batuen eta SESBren arteko gerra hotzak ezaugarri horiek izan zituen aldi bat izan zen.

Belaunaldi osoak hazi ziren gatazka nuklear global baten mehatxupean, eta askok sinesten zuten noiznahi pitz zitekeela eta gizateria ezaba zezakeela. Gerra hotzak bazuen bereizgarri bat: objektiboki, ez zegoen mundu-gerraren inolako arrisku berehalakorik.

Are gehiago: bi aldeek erretorika apokaliptikoa gorabehera, batez ere estatubatuarrena, bi superpotentzietako gobernuak onartu egin zuten Bigarren Mundu Gerraren amaieran ezarritako indar-banaketa globala.

...

Estatu postkolonial berrien etorkizuneko orientazioa garbi ez zegoenez, eremu horretan jarraitu zuten bi superpotentziek lehiatzen laguntza eta eragin bila gerra hotz osoan; han zegoen posibilitaterik handiena gatazka armatuak pizteko, eta hala gertatu zen azkenean (Kubako misilen krisia, Korea eta Vietnam dira adibiderik ezagunenak)... Bakeak iraun zuen gerra hotzean, zeren eta, bi aldeek erabilitako erretorika gorabehera, haietako bat ere ez baitzegoen prest zuzeneko borrokara iristeko; beraz, aldi horretako premisetako bat zen bi potentzien arteko bizikidetzak baketsua posible zela ...

Hobsbawn, Eric, 1998.

EGIN EZAZU IRUZKIN BAT TESTUARI BURUZ:

- Sailkapena eta ezaugarriak
- Ideia nagusiak
- Testuinguru historikoa
- Konklusioak

2. Ordenatu itzazu kronologikoki informazio hauek. (2 puntu)

- A. Schengen espazioa sortu zen.
- B. Municheko Konferentzia
- C. Versaillesko Ituna
- D. Giza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa
- E. Iranen eta Iraken arteko gerra
- F. Erromako Ituna sinatzea
- G. Brezhnev-en aroa SESBn
- H. Poloniaren inbasioa
- I. Depresio Handia
- J. Carter Estatu Batuetako lehendakari.



3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2,5 puntu).



4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 1,5 puntu. / 0,5 puntu definizio bakoitzeko).

1. Nazioen Elkartea
2. Politika Ekonomiko Berria (NEP)
3. Weimarko Errepublika
4. 1973ko krisi ekonomikoa
5. Sudeteen anexioa
6. Schengen espazioa



EBAZPENA HISTORIA OROKORRA (2017ko maiatza)

• **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua.

GALDEKIZUNEN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO LOTURA

GALDEKIZUNA	EDUKI-BLOKEAK
1.a	2. blokea
2.a	1-6 blokeak
3.a	2. blokea
4.a	1-6 blokeak

1.

Sailkapena eta ezaugarriak

Politikako dibulgazio-testu bat da. Eric Hobsbawm-ek, *XX. mendeko historia* liburuan, joan den mendeko gertaera esanguratsuenetan barrena ibiltzen da, I. Mundu Gerran hasi eta milurtekoaren amaierako arazoekin bukatu arte.

Autorea azken berrogeita hamar urteotako historialaririk ospetsuenetakoa da. Aipatzekoa da historia garaikideaz duen ikuspegia: iraultzaren aroa, 1789-1848; kapitalaren aroa, 1848-1875; inperioaren aroa, 1875-1914; eta, amaitzeko, XX. mendearen historia.



Idea nagusiak

Hobsbawm-ek gerra hotzaren aldia eta haren ezaugarri nagusiak azaltzen ditu, eta haren ikuspegi orokor bat ematen du.

Lehen paragrafoan, gerra hotza definitzen edo ezaugarritzen du; hurrengoan, berriz, egiaztatzen du urte horietan bizi izan ziren pertsonen, beste mundu-gerra bat izan zitekeela eta, larritasun- eta ziurgabetasun-sentipena zutela. Hirugarren paragrafoan, gerra-saialdiei buruz tradizionalki idatzi dena gorabehera (Berlingo blokeoa, Grezia, Korea, Kubako misilak, Vietnam...), autoreak defendatzen du bi superpotentziek "ahaleginik handienak egin zituztela norberaren eragin-eremuen gaineko gatazkak talka zabal batera iritsi gabe konpontzeko" –Khrustxov-ek plazaratutako "bizikidetza baketsu" terminoa erabiliz–, eta Koreako gerra eta misilen krisia ematen ditu adibide moduan.

Eta adierazten du, halaber, egoera "itxurazko" normaltasunekoa izan zela hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte, 73ko krisia deitu zitzaiona sortu zen arte.

Testuinguru historikoa

Gerra hotza berrogeita bost urteko aldi bat da, Hiroshimako bonbarekin hasi eta SESBren desagitearekin bukatzen dena; ez da aldi lineal bat antzeko ezaugarriak dituen, baina bada lotura bat une historiko hori hartzen duen mende-erdian: "Bigarren Mundu Gerratik irtendako bi superpotentzien arteko buruz buruko etengabea".

Bigarren Mundu Gerraren ondoko urteak tentsio-giroan iragan ziren, baina bi blokeen arteko zuzeneko talkara iritsi gabe; eta tentsio hori aldakorra izan zen unearren eta inguruabarren arabera. XX. mendeko bigarren aldi horretan, izaera lokaleko gatazka armatu batzuk izan ziren, "ihes-balbula" gisa jokatu zutenak; gatazka horien jokalekua Lerrokatu Gabeko Herrialdeak izan ziren. Urte horietan distentsioaldiak ere izan ziren, askotariko mailakoak eta iraupen desberdinekoak. Aldi hori hiru urratsetan banatu ohi da, eta urrats bakoitzaren izenak haren ezaugarri nagusia adierazten du:

1. Truman eta euste-politka (1946-1953).
2. Khrustxov eta bizikidetza baketsua (1953-1964).
3. Bake nuklearretik Harresiaren erorketara (1964-1990).

1990ean, Berlingo harresia erorita, SESB desagitear zegoela, Gorbatxoven gobernu amaituta eta sobietar errepublika ohiek gerora independentzia lortuta, irauli egin zen nazioarteko politika eta, berarekin batera, historia. Aldi baten amaia izan zen; jada ez zeuden bi bloke, eta Estatu Batuak gelditu ziren munduko superpotentzia bakar gisa.



Konklusioak

Ulertzea zer garrantzi eta zer transzendentzia izan zuen munduko herritarrentzat autoreak islatzen duen aldiak, jendeak “suntsipen osoaren” beldur bizi behar izan baitzuen.

2.

1.	2	3	4	5	6	7	8	9	10
C	I	B	H	D	F	G	J	E	A

3.

Mapa Koreako Gerrari dagokio. Koreako penintsula japoniarren mende egon zen, baina Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek okupatu zuten 1945ean, eta 38º paraleloa hartu zuten banalerrotzat. Gerra hotza piztu zen, eta, ondorioz, Korea bi estatutan banatu zen: Ipar Korea, non, 1948an, “herri-errepublika” bat ezarri baitzen, hots, diktadura komunista bat, Kim Il Sung buru; eta Hego Korea, non, urte horretan bertan, Syngman Rhee-k estatubatuarren aldeko diktadura gogor bat ezarri baitzuen.

1949ko urriaren 1ean Txinan iraultza komunista nagusitu zenean, erabat aldatu zen Asiako oreka geoestrategikoa. Stalin-ek, Europan porrot handiak jasan ondoren (Berlingo blokeoaren porrota edo Jugoslaviaren bereiztea), ezin izan zion eutsi Asian eragina berreskuratzeko tentaldiari, eta adostasuna eman zion Ipar Koreak Hego Koreari erasotzeari.

Hala, 1950eko ekainaren 25ean, Kim Il Sung-en tropek 38º paraleloa zeharkatu eta hegoalderantz abiatu ziren arrakastatsu. Hego Koreako erregimenak Pusan inguruko lurralde txiki bat besterik ezin izan zuen mantendu.

Estatubatuarren erantzuna berehalakoa izan zen; Stalinek ez zuen horrelakorik espero. Washington-ek NBEren Segurtasun Kontseilua biltzea eskatu zuen, eta mandatu bat lortu zuen Ipar Korearen erasoari aurre egingo zion armada baten buru jartzeko. Sobietar ordezkariak utzia zion Kontseiluaren bileretara joateari protesta gisa, Estatu Batuek ez baitzuten onartzen Txinako Herri Errepublikak Kontseiluan parte hartzea, eta horri esker lortu zen ebazpena.

NBEren tropa multinazionalak –praktikan Estatu Batuetako armada zen, MacArthur jenerala buru– berehala berreskuratu zuten galdutako lurraldea, eta urriaren 19an Pyongyang, Ipar Koreako hiriburua, hartu zuten.

Hiru egun lehenago, urriaren 16an, Txinako tropak, sobietarren laguntza militar masiboa erabiliz, Korean sartu eta Estatu Batuetako armada atzera egitera behartu zuten. 1951ko urtarrilaren 4an, tropa komunistek Seul berreskuratu zuten.



Une hartan, MacArthur-ek Txinako iparraldekoa bonba atomikoz bonbardatzea proposatu zuen. Truman lehendakariak eta Kongresuko gehiengoak beldurrez erreakzionatu zuten, erreakzio horrek SESBrekiko gerra nuklearra eragin zezakeelakoan. Aurrez aurreko gero eta zabalagoaren erdian, Truman-ek MacArthur kargugabetu zuen eskuindar errepublikarren protesten artean, eta Ridgway jenerala jarri zuen haren ordean.

Sobietar Batasunak, bere aldetik, adierazi zuen ez zuela asmorik gatazkan parte hartzeko eta nahi zuela bi sistema desberdinak aldi berean izatea penintsulan. "Berdinketa militarrik" negoziazioak irekitzea ekarri zuen, eta 1953ko uztailean amaitu ziren, Stalin hil eta handik gutxira, Panmunjong-eko Armistizioa sinatuta. Hartan, banalerro berri bat ezarri zen 38º paraleloaren gainean sigi-saga marraztua.

Ipar Koreako erregimen komunistak iraun duenez, "gerra hotzeko muga" hori da XXI. menderaino iraun duen bakarra.

4.

1. Nazioen Elkarteak

Nazioen Elkarteak nazioarteko erakunde bat izan zen, Parisko Konferentzian eratua, 1919ko apirilean, Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren, Europak nozitu berria zuen gerra bezalako beste bat saihesteko helburuarekin.

2. Politika Ekonomiko Berria (NEP)

Buruzagi berriek –eta, batez ere, Lenin– Politika Ekonomiko Berria (NEP) proposatu zuten 1921ean, industriaren eta nekazaritzaren produkzio-mailak hobetzeko. Politika ekonomiko misto bat zen, estatuaren kontrolaren eta ekimen pribatuaren artean zebilena:

- Produkzio-sektore giltzarri batzuk (garraioak, oinarriko industriak, finantzak, kanpo-merkataritza) Estatuaren kontrolpean gelditu ziren.
- Ekimen pribatu mugatu bat onartu zen kontsumo-industrietan eta nekazaritza-produkzioan, eta prezio askeak onartu ziren barne-merkatuan.

NEPek berekin zekarren kapitalismora itzultzea, parte batez, eta ezin zuen luzaro iraun baldin eta iraultzaren helburua eredu sozialista bat ezartzea bazen. Oso eztabaidatua izan zen Alderdiaren barnean, eta 1927 arte iraun zuen. Harrezkero, bost urteko planek ordeztu zuten.

3. Weimarko Errepublika

Weimarko aldarrikatutako 1919ko Konstituzioan oinarritu zen Errepublika. Bere garaiko konstituziorik aurrerakoienetakoa izan zen. Bi ganberako



parlamentu bat eta erregimen federal presidentzialista bat ezarri zituen, non presidenteak –sufragio unibertsalez hautatua– dekretu bidez gobernatzeko botere bereziak baitzituen, larrialdietarako.

Izatez, presidenteak benetako botere-alternatiba bat zen parlamentuarekiko. Konstituzioak, bestalde, askatasun eta eskubide sozial eta ekonomikoen sorta bat ezarri zuen, “Ongizatearen estatua” deitutakoaren aurrekari garbi bat izan zena.

Weimarko Errepublikak zailtasun ugari egin behar izan zion aurre, eta haien ondorioz desagertu zen 1933an.

4. 1973ko krisi ekonomikoa

1973ko abuztuaren 23an hasi zen, Arabiar Lurralde Petrolio-esportatzaileen Erakundeak (LPEEko arabiar estatu kideak + Egipto, Siria eta Tunisia + Iran) erabaki zuenean gehiago petroliorik ez esportatzea Yom Kippur-eko Gerran (Israelek Siriaren eta Egiptoren kontra egin zuen gerra) Israeli lagundu zioten herrialdeei. Neurri horren barnean, Estatu Batuak eta haien Mendebaldeko Europako aliatuak sartzen ziren.

Prezioaren igoeraren eta mundu industrializatuak zuen petrolio-mendekotasunaren ondorioz, nabarmen igo zen inflazioa eta eragindako herrialdeetan murriztu egin zen jarduera ekonomikoa.

Blokeoaren efektuak berehala nabaritu ziren. LPEEk petrolio-konpainiak behartu zituen prezioak drastikoki igotzeko. Petrolioaren prezioa laukoiztu egin zen 1974tik, eta upeleko ia 12 dolarrera iritsi zen (75 dolar/m³).

5. Sudeteen anexioa

“Sudeteen Krisia” izenekoa gerrara eraman zuten gertaera esanguratsuetako bat izan zen. Sudeteak Europako erdialdeko mendilerro bat dira, Bohemia (gaur egun, Txekian) eta Silesia (Polonia) artean. Gatazkaren aurretik, bazen han jatorri alemaniarreko populazio bat (sudeteak), garai hartan, 1938an, Txekoslovakiaren barnean.

Txekoslovakia 1918an sortu zen estatu gisa, Austria-Hungarietako Inperioaren desagite eta zatitzearen ondorioz, inperio hori Lehen Mundu Gerran garaitutako potentzietako bat izan baitzen. Estatu demokratikoa, industrializatu eta garatu zen, baina arazo etniko larriak zituen. Gehiengo txekiar jatorrikoa zen (populazioaren % 50), eta zenbait gutxiengo zituen, alemanak batez ere (% 23), eslovakiarrak, hungariarrak eta ruteniarrak (ukrainarrak).

Versaillesko Itunaren ondorioz bihurtu ziren Sudeteak Txekoslovakiaren parte. Hiru bat milioi biztanle zituen, gehienak germanofiloak. Haien lider Konrad Heinlein nazizaleak politika aktibo bati ekin zion, eskualdearen autonomia



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2017

HISTORIA GENERAL

eskatuz, Hirugarren Reich-era anexionatzeko asmo gordearekin. 1938ko urrian, alemanek eskualdea okupatu eta txekiar jatorriko biztanle gehienak kanporatu zituzten.

6. Schengen espazioa

1985eko ekainaren 14an sortu zen, bost herrialdek (Alemania, Belgika, Frantzia, Luxenburgo eta Herbehereak) Schengen-eko Akordioa sinatu zutenean. Bost urte geroago, barne-mugetako kontrolak praktikan nola ezabatuko ziren zehaztu zuen Schengen-eko Hitzarmenak.

Eta konpentsazio-neurri batzuk ere ezarri zituen, beharrezkoak baitziren kanpo-mugetako kontrolak indartzeko, bisak modu uniformeak egiteko prozedura zehazteko, droga-trafikoaren aurka borrokatzeko eta informazioa trukatzeko sistema komun bat, Schengen-eko Informazio Sistema (SIS), ezartzeko.

Muga-kontrolen ezabatze erreala 1995eko martxoaren 26an hasi zen, zazpi herrialdek (hasierako bostez gainera, Espainia eta Portugal) kontrolak ezabatu zituztenean beren barne-mugetan.

Harrezkero, Schengen espazioa zabalduz joan da etengabe, Gau egun, herrialde hauek hartzen ditu: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Eslovenia, Eslovakia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Portugal, Suedia, Txekiar Errepublika eta EBkoak ez diren beste lau herrialde: Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza. Etorkizunean, Bulgaria eta Errumania erabat atxikitzen zaizkionean Schengen espazioari, 28 herrialde izango ditu.